

2024ko urtean zehar Balmasedako jarduera ekonomikoa sustatu eta langabezia murrizteko laguntzak emateko oinarriak diru-laguntzen deialdia

2024an zehar Balmasedan jarduera ekonomikoa sustatu eta langabezia murrizteko diru-laguntzen deialdian xedatutakoa betez, eskabideak aurkezteko epea zabalduko da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamunetik 2024ko irailaren 30ra arte.

Dirulaguntza honen xehetasunak eta baldintzak oinarri arautzaileetan eta Alkatetzaren maiatzaren 24ko 0325/2024 Dekretuaren bidez onartutako deialdian jasota daude.

Eta hau guztia guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Balmaseda, 2024ko maiatzaren 24a. Alkatea.